


# DIRU SARRERAK

Gure proiektua aurrera eramateko, hasierako inbertsioa oso handia denez, mailegu bat beharko dugu kostuei aurre egiteko. Guk 200 metro karratuko lokal bat alokatzeko aukera erabaki dugu, ekonomikoki errentagarriagoa delako.




Lehenik eta behin, negozioa martxan jartzeko 50.000€-ko mailegua eskatuko diogu bankuari, gure dendan izango ditugun hasierako produktuak eskuratzeko eta gure negozioa hasiko dugun lokalaren alokairua eta fidantza ordaintzeko eta lokalak beharrezkoak dituen konponketak eta girotzea aurrera eramateko. Gainera, gutako bakoitzak 2.500€ jarriko ditu gure aurrezkietatik, gainerako gastuak eta ustekabeak ordaindu ahal izateko.

Laburbilduz hasierako inbertsioa ordaindu beharko dugun diru guztia 60.000€ izango da.

Hasiera batean, gure negozioan egingo dugun lehen inbertsioa bankutik eskuratutako mailegua izango da, baina negozioa martxan dagoenean diru sarrerak salmentengatik lortutakoak izango dira.

Merkatu ikerketa egin eta gero, eta hainbat erosle potentzialen iritzia jakin ondoren (galdeketa adin guztietako pertsonei egin zaie, 12 urtetik gorakoetatik 70 urtera bitartekoak), ondorioztatu dugu bezero bakoitzaren adinetik kanpo prezio desberdinak ordaintzeko prest egongo lirakeela. Gazte gehienek prezio ekonomikoena aukeratu dute, hau da, ahalik eta preziorik txikiena. Aldiz, helduek prezio altuagoa ordaintzeko prest daude, beraien gaitasun









ekonomikoa altuagoa baita. Beraz gure produktuen eskaintza berezo potentzial desberdinen nahiak asetuko dituzten produktuez osatuta egongo da, salneurri askotakoak.



- 5-10 euro.
- 10-20 euro.
- 20-30 euro.
- 30 euro baino gehiago.
- Konpromisuaren arabera.
- Oparia jasoko duen pertsonaren arabera
- Pertsonaren arabera

Ondoren produktu esanguratzuen katalogoa gaineratu dugu:

### KATALOGOA

			
Ostruka burukoa (35€)	Sukalde eramangarria (200€)	Animalien euritakoa (10€)	Manta mahukaduna (20€)
			
Gorputz euritakoa (25€)	Self Stirring Mug (20€)	Daltonikoentzako betaurrekoak (45€)	Ohe inteligentea (600€)